

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Gure enpresak eskaintzen duen zerbitzua honako hauei zuzenduta egongo da:

- Adin nagusiko pertsonak, 60 urtetik 80 urtera bitarteko jendea
- Ezgaitasun fisikoak ez ezik mentalak ere dituzten pertsonak
- 30 pertsonako talde handi bat

Adin nagusiko pertsoneri eta ezgaitasun fisiko zein mentalak dituzten pertsoneri ez zaizkie baloratzen gazteei beste, adibidez. Gizartean, alde batera uzten dituzte eta integratu beharra dago.

Bestalde, adin nagusiko pertsona gehienak gaur egungo teknologiak ez dituzte ezagutzen, batzuek haien bizitzan ez direla baliagarriak pentsatzen dutelako. Gainera adin nagusiko pertsona batzuek haien bilobak zaintzen dituzte eta hauek egunerokotasunean teknologia berriak erabiltzen dituzte. Teknologia berriak erabiltzen ikasiz, bilobekin harreman estuago bat izatea lortu dezakete, denbora gehiago igaro baitezakete elkarrekin: jokoetan, bideoak ikusten... Bestalde, teknologiak kontrolatu ezkerro bizitzako gauza ezberdinetarako erabili ahal izango lituzke.

Adin nagusiko pertsonak adin batetik aurrera, arazo fisikoak izaten dituzte: hezurretako arazoak, bizkarrezurrekoak... Ezgaitasun fisikoak dituztenekin batera. Horretarako jarduera batzuk eskainiko dizkiegu, haien psikomotrizitatea landuz. Ezgaitasun mentalak dituzten pertsoneri (gaixotasunen bat dutenak, adinez oso nagusiak direnak); ordea, memoria jarduerak eskainiko dizkiegu haien memoria garatzeko, mentalki aktibo egoteko. Urteak aurrera doazela, pertsonok ahulagoak gara eta sarritan gure memoriak landu behar izaten ditugu. Gainera, beharrezkoa da bai mentalki bai fisikoki aktibo gotea.

Azkenik, adin nagusikoak askotan ordu asko pasatzen dituzte bakardadean, eta ez datorkie txarto jende berria ezagutzea edota gauza berriak ikastea, bakarrik ez sentitzeko eta arazoetatik "ihes" egiteko. Lagungarria da baita zure iraganeko kontakizunak partekatzea eta besteenak entzutea.